

Olatz Arrieta kazetariak zabalduko du txotx garaia Astigarragan

Gartziategi sagardotegian egingo dute ekitaldia, hilaren 16an.



Olatz Arrieta, artxiboko irudi batean. / JON URBE/FOKU

Arantxa Elizegi Egilegor -

2019ko urtarilak 2



Bi aste barru, urtarilaren 16an aurkeztuko dute aurtengo sagardo uzta. 12:00etan izango da ekitaldia, Astigarragako Sagardoetxean, eta hantxe izango dira Zorione Etxezarraga alkatea eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Jaurlaritzako zenbait ordezkari.

Txotx garaia, berriz, beranduago emango diote hasiera Gartziategi sagardotegian. Aurten, [Olatz Arrieta kazetaria](#) izango da sagardoa probatzen lehena. EITBk Bruselan duen berriemaile berezia da Arrieta.

Iazko maiatzean, Kazetaritzako X. EuroBasque saria eman zioten [Trump, amesgaizto amerikarra](#) liburu kolektiboko *Europa, lehen egunen ezinegon*a artikuluetatik. Liburua Aleka bildumako lanetako bat da, eta Elkarrek, Jakinek eta BERRIAk argitaratu dute, elkarlanean. Arrietak ez ezik, Joseba Zulaikak, Larraitx Ariznabarreta eta Juan Garzia Garmendiak, Jaqueline Urlak, William A. Douglasssek, Unai Pascualek eta Joseba Gabilondok ere artikulua bana idatzi zuten, Donald Trump AEBetako presidentetzara iritsi izanaren zergatiak argitzea helburu duen lan horretarako.

Irakurle agurgarria:

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu: irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta erakundeen diru-laguntzak ez dira nahikoa BERRIAren etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke.

Kazetaritza libre, ireki eta independentea egin nahi dugu euskaldunontzat. Euskaraz informatzea delako gure eginkizuna, eta zure eskubidea. Lagun gaitzazu bide horretan. Idatzi gurekin etorkizuna. Geroa zugan.

Martxelo Otamendi
BERRIAko zuzendaria

Izan zaitez BERRIAlaguna

Gehien irakurriak

1

Foruzaingoa Maravillas gaztetxean sartu da
GORKA BERASATEGI OTAMENDI

2

2018ko izen-abizenak
UNAI UGARTEMENDIA

3

Ezker abertzaleko familia baten baserriari tiro egin diote Amurrian
GOTZON HERMOSILLA

4

«Emakumeen artikulazioak asko baldintzatuko du bertsolaritza»
MIREN GARATE

5

«Beste motibazio eta ilusio batzuk behar nituelako aldatu naiz taldez»
AINARA ARRATIBEL GASCON

Berria.eus - Euskal Editorea SM
Telefona: 943-30 40 30
Faxa: 943-59 01 72
Webgunea: webgunea@berria.eus
Publizitatea: publi@bidera.eus
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

JARRAITU

-  Facebook
-  Google
-  Twitter
-  Instagram
-  Youtube
-  RSS

LEGEA

Lege Informazioa
Pribatutasun politika
Cookieak
 Lizentzia
Publizitatea
Bidera zerbitzuak
MIDAS Media

Irakurtzen ari zaren edukia libre ematen jarraitu nahi dugu. Euskaraz informatzea da gure eginkizuna, zure eskubidea. Sareko irakurlea bazara, konprometitu zaitez irakurtzen ari zarenarekin. **Geroa zugan.**

